

Denboraren makina
Fiat Cinquecento:
auto merkeak
herriarentzat

▣ *Ezpalak*
▣ *Argitalpenak*

▣ *Denbora-pasak*
▣ *Makina bat kontu*

Ihesi
Lezo, itsasoz
inguratutako
altxorra

ARGIA

erdiko kaiera

kultura eta aisia

Antzerki konpainia, harreman bila

Donibane Lohitzuneko pabilioi batean topatu du egoitza berria Theatre du Rivage antzerki konpainiak, bost urtez porturik ikusi gabe nabigatzen ibili ostean. *Solisterrae* eta *Batekmila* ikuskarien sortzaileak sei hilabetez izango dira bertan, oraingo. Euren lanak sortzeaz gain, bizilagunekin eta inguruko artistekin harremanak estutzea dute helburu nagusia.

AINARA GURRUTXAGA

GAIZKA IROZ



**Theatre
du Rivage**



Ur bazterretik dator proposamena

“THEATRE DU RIVAGE-K ur bazterreko antzerkia esan nahi du. Jendea iritsi eta abiatu egiten den lekua iradokitzen du, eta aldi berean paisaian txertatuta dagoen antzerkia”, dio Pascale Daniel-Lacombe zuzendari artistikoak, duela hamar bat urte konpainia sortu zutenean jarritako izenaren zergatia gogoratuz. Azken urteetan ordea, zaila izan dute euren helburuetako bat lortzea: inguruan txertatzea. Bost urte dira lanerako espazio finkorik gabe dabilzala, eta ondorioz ia ezinezkoa izan zaie euren inguruko errealitate kultural eta sozialarekin bat egitea.

Orain, baina, Herri Elkargoaren bitartekaritzaekin –Lapurdikoa hamabi herritako udalek sortutako elkarteak– Jalai industrialdeko pabilioi bat errenta baxuan alokatzea lortu dute eta sei hilabetez bederen burubelarri aritu ahal izango dute bertan lanean. Ondoren, nork daki.

Pascale Daniel-Lacombe eta Antonin Vulin administrazio arduraduna dira konpainiaren buruak eta bost aktore-sortzaile gonbidatu dituzte aro berri honetan eurekin lan egiteko: “Lan talde bat osatu nahi izan

dugu, modu finkoan gurekin lanean aritzeko. Aktore *todoterrenoak* nahi genituen, edozertarako prest zeudenak: konpainian bizitzeko, eraikuntza lanak egiteko, antzezteko, irakasteko... Inguru honetan eragin nahi dugu eta horretarako ezagarrri hori ezinbesteko zuten aktoreek”, dio Lacombek.

Delphine Bastard, Baptiste Eliçagaray, Javier Barandiaran, Agnes François eta Annie Onchalo dira aipatu sortzaileak, guztiak ere aurretik antzerkigintzan eskarmentua duten aktore profesionalak. Gainera Pascal Angla musikari eta aktorea ere arituko da zenbait kolaboraziotan. Elkar ezagutu eta elkarrekin sortu; hori da dato-

zen hilabeteetako erronka.

“Ez dugu funtzionamendu modu hau inon ezagutu. Gure asmakizuna da nolabait”, aitortu du irribarretsu zuzendariak: “Oso esperimentalak da, eta ez dakigu modurik egokiena ote den. Probantzea da kontua eta konpainiarentzat erosoena den lan formula topatzea. Harian ikusiko dugu”.

Gogoan hartzeko hainbat ekimen:

- ✓ Abenduaren 9a, 17:00etan: Saran Zoaz hegan errari txo-txongilo ikuskariaren estreinaldia.
- ✓ Abenduaren 15a, 20:30ean: Azkaineko Biltoki aretoan Oier Guillanek bere antzerki testuen irakurketa egingo du.
- ✓ Urtarrilaren 19an eta 20an Beñat Achiaryren eskutik *Hitza pitz bidean*, asteburu osoko ekimena. Bertsolariak, kantariak, Itxaro Borda eta sorpresa gehiago...
- ✓ Antzerki tailerra helduentzat Donibane Lohitzunen, euskaraz. Informazioa jasotzeko edo izena emateko 00 33 (0) 5 59 26 97 75era deitu.

Programa guztia www.theatredurivage.com gunean kontsulta daiteke.

Makina martxan

400 m² dituen espazio hutsa pixkanaka bizitza

hartuz joan da konpainiak bere tramankuluak eta ilusioak eraman dituenetik. Egun hauetan *Zoa*z began errari antzezlan berriaren eszenografiak hartu du espazio zabalaren zati handi bat. Abenduaren 9an estreinatuko dute haurrei zuzendutako txotxongilo ikuskaria, eta oraingoz eszenategia prestatu eta lehen entseguak egiten ari dira. Taldean sortutako lana izango da. Testua Vivaldiren lau urtaroretan oinarrituta idatzi du Pascale Daniel-Lacombek eta berak zuzenduko ditu konpainiako lau aktore. Txotxongiloetan esperientzia zabala duen Annie Onchalo taldekideak sortu ditu panpinak. Ikuskaria euskaraz, frantsesez eta gaztelaniaz eskainiko dute, jada lotuta dituzten 35 emanaldietan.

Baina ez da hori aire berrikin datorren taldearen eginbehar bakarra. Besteen artean *Les déconcertantes* (Ustekabeak) ekimena ere martxan jarri berri dute. Aktoreek kalean inprobisatutako ekin tzak gauzatzen dituzte egitasmo horretan, ezustean, abisurik gabe. Donibane Lohitzunen egin zuten lehena urrian. Gainera *La belle échappée* (Ihesaldi ederra) izeneko ikuskaria ere abiatu dute, inguruko eskoletako haurrei ipuin kontaketa eta jolasak eskaintzen dizkien saioa.

Formazio eta sentsibilizazio arloan ere proposamen ugari dakartza taldeak, adin guztientzat antzerki ikastarok antolatu baitituzte hasi berri den ikasturteari begira, horiek ere euskaraz eta frantsesez. Taldearen egoitza berri eskainiko dituzte batzuk eta inguruko herrietan beste hainbat. “Eskaintza ahalik eta zabalena egin nahi izan dugu. Hau da, herrietara, udalxetara, instituzioetara ahalik eta proposamen zabalena eskaintzea. Ekintzak inposatu beharrean proposamen ireki lez ematea. Eran tzuna ikusi eta horren arabera jardungo dugu gerora”.

Aurreikuspen
Pentsio
Planak EUSKADIKO KUTXA

Félixen Plana

“Jende askok galdetzen dit ea benetan dirudien beste gustatzen zaiden zinea. Eta agia ezateko er düt gustakoa. Ikaragami gustukoa baitrik. Agian, denbora gehiegi ere eskaintzen düt. Eskerrik etorkibuneko gauze serlo haurretaniko Euskadiko Kutxa daukadan”

Félix Litama
Aurkezlea eta zine-zinkaria

Planari egiten dizkiozun ekarpenek **badute sarria**.

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Javier Barandiaran, aktorea "Proiektu berriak eskola dira niretzat"

Ados konpainiaren *Manolito lau begi*, *John Wayneren laguna* eta *Dekameronean* aktore aritua da Javier Barandiaran donostiarra eta azken lau urteetan batez ere Trapu Zaharra taldearekin jardun du lanean. Bakarrizketak landu izan ditu *–Errare humanum est* azkena– eta Mikelazulo elkartearekin ere zenbait antzezlan sortua da: *Gorria* eta *Eskubiko paret*a, horien artean. Zoriak larraldera ekarri du orain.

Batekmila egitasmoak ireki zizkizun hona etortzeko ateak.

Bai, duela bi urte Theatre du Rivagek EKEn bidez euskal kultura *ghettotik* ateratzeko nahiarekin *Batekmila* jarri zuen martxan. Antzerkia, dantza eta kantua batzen zituen ikuskaria zen. Rivagek antzerkiaren atala osatu zuen, Beñat Achiaryk musika eta Balet Biarritz Juniorrek dantza. Taldeak Hegoaldeko aktoreak bilatu zituen horretarako, lana frantsesez eta euskaraz baitzen. Ohikoa den bezala, ordea, nahiko emanaldi gutxi egin genituen. Enkarguzko lana izaki, sekulako munstroak sortzen dira eta gero ez dira mugitzeko errazak.

Oraingoan berriz, buru-belarri sartu zara Theatre du Rivage konpainiarekin lanean.

Bai, *Batekmilan* sortutako harremanaren ondoren ea honetan parte hartuko nukeen galdegin zidaten eta niri oso ondo etorri zitzaidan. Donostiatik ateratzeko modu baten bila nenbilen, nekatuta nengoen-eta han. Gorpu-

tzak aldaketa eskatzen zidan. Trapu Zaharra taldearekin gustura nengoen baina aldaketa behar nuen.

Zein da zure eguneroko dinamika hemen?

Hemen bizi garela esan daiteke. Baionan etxea dugu lo egiteko baina egun osoa hemen pasatzen dugu. 9:00ak aldera iristen gara eta egunaren arabera lan ezberdinak egiten ditugu. Egitasmo ezberdinak daudenez martxan aste bakoitza ezberdin planifikatzen dugu. Momentu honetan batez ere txotxongilo ikuskizunean eszenografia eta *atrezooa* egiten ari naiz, brikolajea. Astebetean, gauzak amaituta, manipulatzen eta obra lantzen hasiko gara.

Polibalentea behar du egungo aktoreak...

Eta ondo dago denetik egitea, ikastea. Neukan lana utzi nuenean formazio batean pentsatu nuen, beti izan dut-eta formazio faltaren sentsazioa. Donostiako TAEn egin nituen antzerki ikasketak, baina ez da asko. Proiektu berriak, beraz, eskola dira niretzat. Ikasteko aukera aparta.

Aktore moduan halako inplikazioa eskatzea ez da ohikoa, gustura al zabilta?

Bai, baina sentsazio arraroak ere badituz batzutan. Ni hona etortzeko motibazioak anitzak izan dira eta batzutan pentsatzen dut zer ari naizen hemen, baina orokorrean ez dut hori pentsatzen. Luxua da aukera hau izatea, halako leku batean aritzea, lan talde bat izatea eta proiektuak izatea aurretik. Gogoz hartzen duzu istorioa.

Espazio irekia

Ingurua astintzeko gogoz hasi da lanean Theatre du Rivage. Euren lantoki izateaz gain, espazio berria gune irekia izatea nahi dute. Inguruko jendearentzat elkargune izan daitekeen espazioa. Horregatik kultur eskaintza anitza egin dute datozen hila-beteetarako prestatutako programan. Inguruko sortzaileak egoitzara gonbidatu eta herritarrei ateak zabaltzeko modua da. Horregatik lantzean behin kantaldiak, erakusketak eta irakurketak egin dituzte.

Etorkizunean beste konpainien entsegu lekua izan dadin ere nahi dute: "Ipar edo Hegoaldeko konpainiek erresidencia modukoak egin ahal izango dituzte hemen, baita atzerrikoek ere".

Ez dira garai samurrak antzerki konpainientzat eta halako azpiegitura duen taldea mantentzea abentura dela ezin ukatu. Hori ondo dakiten arren, baikor azaldu dira: "Denbora asko generaman honen atzetik, instituzioen jarrera

positiboagoaren zain baina azkenean ez dugu ezer jaso eta aurrera egitea erabaki dugu. Proiektu handi bat egin nahi izan dugu, ikusteko ea erreakziorik badagoen. Ea instituzioak behingoz mugiaraztea lortzen dugun", dio zuzendariak enbidoa boteaz.

Espazio berri honekin gero eta gertuago dago Theatre du Rivage egin nahi duen horretatik, nahiz eta ez jakin noiz arte izango duten bertan egoteko aukera. Ezin sei hila-bete baino gehiagorako planik egin. Ametsak, ordea, bizirik jarraitzen du: "Nire ametsa populaziotik oso gertu bizi den artisten kolektiboa sortzea da, modu oso hurbilean lan egiten duena. Artista horiek luzerako hor

egotea eta, hala, euren bizipenak ere populazioak bizitzeko aukera izatea", gaineratu du elkarrizketaren amaieran konpainiaren zuzendari artistikoak. Denboraren, lanaren eta administrazioen esku dago orain amets hori posible den erabakitzea. ■

THEATRE DU RIVAGE



400 metro koadroko pabilioian ari da lanean Theatre du Rivage.